

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

ZEHARKAKO POLITIKETARAKO ARLOA

Gobernantza Feminista

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 29an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onetsi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako norgehiagoka araubideko dirulaguntzen 2026ko deialdia

BDNS (Identif.): 909613.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/909613>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntzak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteek jaso ahal izango dituzte, 2026an Laudioko udalerrian interesekoak izan litezkeen programa eta/edo jarduerak gauzatzeko, edozein izanik haien izaera juridikoa.

Ezin izango dira onuradun izan dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan edo Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean baztertzeko arrazoi gisa jasotako egoeraren batean dauden erakunde eta elkarteak.

Nolanahi ere, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Egoitza soziala, helbide fiskala, ordezkaritza edo lantokia legez eratuta eta Laudion inskribatuta izatea, eta/edo jarduera osoa edo zati bat Laudioko udalerrian egitea.

b) Legez eratuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen eta Erakundearen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro ofizial baliokidean inskribatuta egotea.

c) Estatutuetan jasota egotea irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarte bat dela.

d) Laudioko Elkarte, Herritarren Erakunde eta Talde Egonkorren Udal Erregistroan edo udal-erregistro baliokide batean inskribatuta egotea edo irabazi-asmorik gabeko kooperatiba izatea. Udal-erregistroan alta emanda egon ezean, inskripzio-eskabidea aurkeztuko da.

e) Bere programak eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.

f) Barne-demokrazia bermatzea, bai gobernu- organoen osaeran, bai funtzionamenduan.

g) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izandako ibilbidea egiaztatzea; edo beren estatutuetako helburuen, helburu sozialaren edo fundazio-helburuaren artean berdintasuna sustatzea dagoela egiaztatzea; edo diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatu duten pertsonen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoak dutela egiaztatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako

Dekretuan ezarritakoaren arabera. Egiaztapen hori dirulaguntza ebatzi aurretik justifikatu beharko da, Balorazio Batzordeak zehazten duen epean, eta, betiere, Laudioko Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko 2026ko berariazko prestakuntza eman ondoren.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen objektua da Laudioko Udalak Zeharkako Politiketarako Arloaren, Gobernantza azpiarloaren, bitartez (Gobernantza Feministaren Zerbitzu Unitatea) kudeatzen dituen dirulaguntzak ematea, norgehiagoka-araubidean. Dirulaguntza horiek berdintasunaren alorrean elkarte-sarea sustatzeko, eta irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarten programak eta/edo jarduerak antolatu, garatu eta gauzatzeko finantzaketarako izango dira. Nolanahi ere, jarduerak eta/edo esku-hartzeak (Laudioko udalerrian gauzatzen direnak edo udalerriaren interesekoak direnak) emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunari laguntzera bideratuko dira.

Hirugarrena. Oinarri arautzailea

Dirulaguntza horietarako, 28.500,00 euro bideratuko dira guztira, 2026an indarrean dagoen udal-aurrekontutik.

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 29an hartuko erabakiaren bidez onetsia, eta, ondoren, ALHAOn argitaratua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honi dagokion gastua Laudioko Udalak 2026rako indarrean duen aurrekontuan kargatuko da, zehazki, "Subvenciones asociaciones igualdad" ("Elkarteentzako dirulaguntzak; berdintasuna") 0203 2317 48100 aurrekontu-aplikazio.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Hoge (20) egun baliouduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Laudio, 2026ko maiatzaren 29a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ